

AJANGIZko udala

2012ko udazkena

Informatzen



Ajangiztarrok!!!

Aldizkari honeguz orain arte egindako eta urtea amaitu arte egiteko garan gauzak azaldu gura deusueguz. Egin doguzan proiektu, obra, al-daketak (farolak, web orria...)... zuen gustukoak izatea espero dogu, beti be herria hobetzeko asmotan eta herritarren nahiak entzunaz egin doguz eta.

Eskerrak emon nahi deuseguz, modu aktibo baten parte hartzen dabenei, euren iritziak plazaratzen dabezanei ekarpenak eta proposamenak egiten dabezanei. Eurek barik udalak ezin izango ebalako guztiengana horren modu eraginkorrean heldu. Halan ba, honeguz batera zuen partaidetza eskatzen dogu, udalaren, Web orriaren, bileren, bitartez.

Amaitzeko bizi dogun krisi ekonomiko gogor honetan, udala ahalegin guztia egiten dabil herritarrei ahal dan neurrian laguntzeko, guztiontzako direlako momentu gogorak honek. 2013a guztiontzako hobegoa izango danaren esperantzaz, gerorarte eta ondo bizi.

Arabieta-Kanpantxu-Zubialde

Kanpantxuko bidearen hobekuntza eta bide gorriaren luzapena

Kanpantxuko plazarako bideak konpontzen laster hasiko dira, Arabietako bidegurutzetik plazarako bide ertzak, karkabak hormigoiz hartuko doguz bidea ahal dan beste zabaltzeko. Asfaltoa egoera txarrean dagoen lekuetan barria ipiniko dogu eta bazter-babesa ipiniko dogu behar dan lekuetan. Bestalde, plazatik Zubialderako bidea be konpontzen hasiko gara, bide hori apur bat zabalduko da eta osorik jarriko da asfalto barria, egoera benetan txarrean dago eta. Honeguz batera bide osoan, Zubialdetik Arabietako bidegurutzera arte bidegorria margoztuko dogu, oinezkoen babeserako. Honen guztiaren kostua 137.500€ takoa da, eta momentuz Bizkaiko Foru Aldundiak emondako diru-laguntza 52.003,15 €koa da.



Arabieta, Kanpantxu eta Zubialdeko obra egingo dogula aprobetxatuz, beste lan txikiago batzuk be egingo doguz.



Mendietako erdigunean, Mendatitik Gernikarako bidean zebrabide bat ipiniko dogu, pisu barrietako bizilagunentzak segurtasun neurriak hartuz eta erdiguneko trafikoaren abiadura motelduz. Mendatitik datorren trafiko arazoari urtenbidea emongo deusagu.



Arganako bidegurutzean, karkabak hormigoiz hartuko doguz, bidea apur bat zabaldu eta asfaltatu, gero behar diren zirkulazioko seinaleak margoztu eta jarritz.



Larruze inguruko bidegurutzean badenak jarriko dira abiadura azkarrean pasatzen diren kotxeen abiadura moteltzeko.



Etxezarreko bidegurutzea de hobetu egingo da. Bidegurutze honetan bidearen egoera oso txarra da, eta konpondu beharra ikusi dogu.



Frontoia

Frontoia amaituta eta ordainduta dago (azken hau aipatzekoa da bizi doguzan une honek kontutan izanda) arinagoko udalak egindako gestio onari esker. Frontoia pasadan urtean inauguratu gendun, nahiz eta gauza batzuk amaitzear egon; jada dana dago amaituta.



Frontoiko ordenantza egiten gaizoz, eta hurrengo plenoan onar-

tuko dogu. Laburbilduta ondorengo funtzionamendua izango dau:

Frontoirako erreserbak hileko azken barikuan zarratuko dira hurrengo hilabeterako, hau da, frontoian bertan jarriko dira erreserbak bitrina batetan. Erreserbak Ajangiztarrak bakarrik egin ahal izango dabez, ez dau kosturik izango eta udalak ekintzaren baterako frontoia behar izatekotan preferentzia izango dau. Bariku arratsaldetarako ezin izango da erreserbarik egin, Udalak erreserbatuta izango dabelako bertoko gazteen erabilerarako.

Argia bizteko makina jarriko dogu hurrengo asteetan. Makinak euro bateko txanponak bakarrik onartuko ditu eta euro batekin ordu erdiz biztuko dira argiak. Erreserbak gehienez ordu eta erdikoak izango dira.

Dutxen erabilerari dagokionez, herritarrak aukera izango dabe kontratu bat sinatu eta gero, ordainsari baten truke dutxak erabiltzeko.

Herri osoko argiteri publikoa

Gastuak eta argi-kontaminazioa murrizte aldera herri osoko faroletako bonbilak aldatu doguz, indukziozkoak jarritz. Gainera fakturen gestiorako enpresa bat kontratatu dogu argi kontratu guztiak aztertu eta neurriak hartzeko. Herri osoan Iberdrolarekin 30 kontratu desberdin baino gehiago eta beste horren beste kontadore daukaguz. Ahal diren gehienak batzea da geure asmoa makinaren alkilerraren kostua gitxitzeko. Hiru neurri honetaz % 50a baino gehiago aurrezteko espero dogu: urtean 22.000 € gastatzen doguz argiterian eta 5.000 € mantenuan. Mantenuko gastua hurrengo urteetan 0 €koa izango dala aurreikusten da, bonbila honek 15 urteko bizia daukielako. Hau guztia aurrera erroteko udalak 43.755,75 €ko inbertsioa egin dau, Bizkaiko Foru Aldunditik, Agenda 21etik hain zuzen be %80ko diru-laguntza jasoaz, hau da, 35.004,60 €.




Kultur-Etxea

- Urtero legez, langile baten lanpostua atara dogu, urritik uztaileira bitartean kultur-etxea dinamizatu eta liburutegia antolatzeko.
- Kultur-Etxeko ordenantza hile amaierako plenoan onartuko dogu. Ordenantza honegaz, Kultur-Etxea itxita dagoen egunetan be erabiltzeko aukera zabaldu nahi dogu. Horretarako erabiltzaileek kontratu bat sinatu beharko dabe, konpromiso batzuk hartuaz.
- Urtean zehar (urritik ekainera) emongo diren kurtsoak 5 izango dira: Yoga eta erlajazioa, Pilaflex, ingelesa (ume, gazte eta helduentzako), dantza modernoak (Funky..) eta Euskal dantzak. Astelehenetan Ingelesa emongo da, martitzen eta eguenetan Yoga-erlajazioa eta Pilaflex, eguaztenetan dantza modernoak eta barikutan Euskal dantzak. Izena emoteko udaletxera (goizez) edo Kultur Etxera (arratsaldez) jo behar da. Herritik kanpoko jendeak be izena eman ahal izango dau.
- Kultur-etxea zuengana hurbiltzeko, Blog bat jarri dogu martxan, hau da helbidea: www.blogak.com/ajangizkokulturetxea
- Kultur-etxeko azken pisuan 6 lokal dagoz herriko alkarte kulturalen erabilerarako, horreetako 4 okupatuta dagoz, baina beste 2 gelditzen dira hutsik. Lokalak erabiltzeko interesatuta dagozan alkarteak, idatzi baten bitartez eskatu ahalko dabe. Eskariak aztertu eta gero udal-banaketa arautuko da.
- Aurton Kultur-Etxeak uztailean antolatutako ekintzak izandako arrakasta eta gero, datorren urtean eskaintza zabalago bat egingo dau, ekintza barriak eskainiaz, ekainaren azkeneko astetik, uztailearen amaierararte.



Bide barri bat

Udalak Frontoiaren eta Kultur-Etxearen atzeko partean lurra eskuratu dau eraikuntza publiko bietara ibilgailua sartu ahal izateko (gasoleoaren kamioia, anbulantzia.....) lursaila 378,55m²takoa da, planoan koloreztatutako zatia hain zuzen.



Biscaytik

Ajangizko Udalak BiscayTIK Proiektuarekiko Atxikimendurako Hitzarmena sinatu dau. Bizkaiko Foru Aldundiko proiektu honen helburua Bizkaiko udal administrazioen tresnak homogenzatea da. Udal honi aplikazio informatikoen mailaz mailako barrikuntza ekarri deuto, sinadura elektronikoa edo dokumentazio fitxategi digitala moduko sistema modernoagoak erabiliz. Gaur egun webgune barri bat dau eta etorkizunean webgune honen bidez biztanleek udal tramiteak egin ahalko dabaz internet erabiliz. Erabat garaturik egon bezain laster 100 udal tramite desberdin egiteko aukera ahalbideratuko dau, udaletxera etorri edo ilarak itxaron beharrik barik.

Eliza


Arinagoko udalak, Koldo Carbonell buru zala egindako gestioari esker Elizako Portikoa konpondu eban. Guk aurrekoek egindako lanagaz jarraitu dogu eta eskaerak, bilerak... egin ondoren sarrera nagusiko eskailerak konpontzea lortu dogu, honekin batera kanpandorra konpontzen dabilta eta teilatu printzipaleko ezbeharrak konpondu dabez.



Lur Gozo

Gogoratzen deutsuegu Lur Gozo denda ekologikoa dogula Ajangizen, kontsumo ekologikorako Urdaibai-ko alkarte. Alkarte honek Ajangizko udalarekin hitzarmen bat dauka sinatuta, eta honi esker Ajangiztar guztiek aukera dabela bertan euren erosketak egiteko eta baita be ekologian sortutako produktuak sal-tzeko. Lur Gozoko ordutegia: Martitzenetan, goizeko 11:30etatik 13:30etara, eta arratsaldetan 17:00etatik 20:00etara. Eguazten, eguen eta barikuetan, arratsaldeko 17:30etatik, 20:30etara.





Arabietako bidegurutzeara

Arabietako bidegurutzeko arazoa konpontzeko lanean gabiltza. Proiektu handi batez ari gara berbetan, udalak bere bakardadean aurrera eraman ezin dabena. Lan hau MAIER, Gernikako Udala eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz aurrera eroateko proiektua da. Aurreproiektua eginda dogu, orain guztion arteko koordinazioa behar dogu eta horretan gabiltza, MAIERegaz adostu dogu eta orain

hurrengo hilabeteetan Gernikako udalagaz batzartuko gara, zubi erdia euren da eta. Ostean, proiektu honetan inplikaturako gagozan hiru instituzinoak Bizkaiko Foru Aldundiagaz batuko gara, azpiegiturak eta industria sailekin hain zuzen be. Ahalegin guztia egiten gabiltza geure legegintzaldian egiteko, eta ez badogu lortzen behintzat hurrengo legegintzaldirako dana lotuta ixtea da geure helburua.



Errenteriako bidegurutzeara

Errenteriako bidegurutzeara nahiz eta Gernikan egon, ajangiztarrentzat oso garrantzitsua da. Azken asteotan esan deuskuenen arabera, Gernikako Udalak bertan sortzen dan trafiko arazoari urten-bide bat emongo deutso, errotonda bat eginez.

Orain dala hilabete batzuk apurtutako gurutzeara ipini aurretik, errotonda bat egingo dabe, bertan gurutzeara jartzeko. Proiektua eginda dago dagoeneko eta Bizkaiko Foru Aldundiaren baimena jaso bezain laster egingo dabe.

Langabezia

Bizi dogun krisialdi honetan, udalak langabeziari aurre egiteko, aurten neurri bereziak hartu dauz. Alde batetik, urtero kanpora kontratatu izan dan zerbitzu bat (bide ertzetako bedarrak ebakitzearena), aurton herritar bi kontratatuz bete dogu. Maiatzean herritar bat kontratatu gendun 2 hilabeterako eta orain irailean beste bat beste 2 hilabeterako. Honegaz batera, udalak, lanean jarraitzen du Maierrekin langabezia murrizteko; garai gogorak dira eta ez da erraza. Gainera, Arabieta-Kanpantxuko Plaza- Zubialde bidea konponduko daben Intxausti enpresarekin be akordio batera heldu gara herritarren bat kontratatu dagien bertako lanetan aritzeko

Nekazaritza

Nekazaritza bultzatzen gabilta udaletxetik. Horretarako bilera bi antolatu ziren, lehenengo bileran nekazaritzara dedikatu gura zirenekaz jarri ginen kontaktuan, eta ostean lurrak eskuragarri jartzeko prest dagozan lurren jabeekin. Lanean jarraitzen dogu honetan eta nonor interesaturik egotekotan udalera jo dezala. Krisi ekonomiko sasoi honetan be nekazaritza lan aukera bat izan daiteke, lurrari eta ekologiarri lotutako lana. Guztiok dakigun moduan Historikoki Ajangizen baserria eta lana oso lotuta egon dira. Lanaren gehiena baserrietan egiten zan eta hau zan gure aberastasunaren iturria. Lana izateaz gain, kultura be bazan, baita gauzak egiteko era bat, lankidetzak kolektibo bat, hazien zainketa eta abar. Ogibidea eta bizimodua zan. Herriko patroia bera San Isidoro dogu, nekazaria.



Politika fiskala, gutxien daukienen mesedetan

Udalaren politika fiskalaren irizpide nagusiak

Zerga sistemaren bitartez lortzen dan diru-bilketa da administrazi- no publikoen diru-iturri nagusia, Udala ez da urtearen bukaeran etekinak ateratzeko dagoen enpresa bat, herritarrei (eta hauen artean lehenasunez, gutxien daukienei) zerbitzuak emoten busti behar dan erakunde publiko bat baino. Dana dala egungo krisi egoera larriak gastuaren be- rrazterketa sakona eskatzen dau, lehenasunak ondo finkatuz.

- Orain artean egin dan zerga politikaren azterketa sakona egin behar da lehenengo.
- Tasa eta Prezio Publiko bakoitzean, kostuen azterketa bat egitea behar beharrezkoa da. Irizpide nagusi modura, oinarriko zerbitzuen (ura, zabortzak, estolderia,...) gutxieneko erabilera ahalik eta merkeen berrmatuko dau udalak.
- Progresibitatearen ildotik, politika soziala egiten saiatu behar dogu, behartsu eta gutxien daukienen zerbitzuak ordaintzeko, gehien daukienen zergak erabiliko doguz.
- Udala beti egongo da behar dabenari urtenbide egoki bat emoteko prest, eta edonork daukoz horretarako atea zabalik.

